


EAJ/PNV ETA EH BILDUREN MOZIOA KATALUINIAKO EGOERAREN
AURREAN:

1. Tolosako Udalak bere kezka eta erabateko arbuioa adierazten ditu Carles Puigdemonten atxiloteta eta Jordi Turull, Carme Forcadell, Raül Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassa kartzelatzeke agindua dela eta, Auzitegi Gorenak martxoaren 23an, ostirala, emanak biak. Salbuespenezko bi neurri horiek gehitu behar zaizkio Oriol Junqueras, Joaquin Forn, Jordi Sánchez eta Jordi Croixat lehendik jasaten ari diren kartzelatze prebentiboari, eta hori ere zentsuratzen dugu, oinarritzko printzipio demokratikoak urratzen dituelako.
2. Tolosako Udalak salatzen ditu herritarrek aukeratutako hautetsien kartzelatzeak, behin eta berriz gertatu direnak, izan ere, beren eskubide politikoak ukatzen ari zaizkie, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak agerian utzi duen bezala Jordi Sànchezen kasuan. Era berean, bere egiten du, sekulako kezkarekin gainera, Amnistia Internazionalak jarduketa judizial hauei buruz egin duen balorazio kritikoa, gehiegizkoak baitira leporatutako karguak, neurritz kanpokoak baitira baldintzarik gabeko kartzelatze prebentiboak eta ohiz kanpokoak baita epaitzeko modua.
3. Tolosako Udalak bere babesa eta elkartasuna adierazten die atxilotu eta kartzelatuei, beren familiei, beren erakunde politikoei eta sozialei, eta Kataluniako gizarte osoari, eta berehala askatzeko exijitzen du.
4. Tolosako Udalak adierazten du erabakitzeke eskubidea aplikatzea eta Kataluniako herritarrek erabakitakoa errespetatzea dela egoerari konponbidea emateko bide bakarra eta salatu egiten du Espainiako gobernuak konponbide demokratiko horri bidea itxi izana.
5. Tolosako Udalak erabaki honen berri emango die Espainiako eta Alemaniako gobernuari.

Tolosa, 2018ko martxoaren 27an



TOLOSAKO UDALA

2018 MAR. 27

SARRERA ERREGISTROA
ZKA.2703.....